



SEXU MUXU

**Hartutako immunoeskasiaren birusa
eta hiesa.**

(GIB eta HIESa)



SEXU MUXU

Zer da GIBa? eta hiesa?

Giza immunoeskasiaren birusa da GIB deitua; hainbat modutara transmititzen da, eta, birusaren fase aurreratuenean, hiesa eragitera hel daiteke.

Ez da gauza bera GIBaren eramaile izatea eta hiesa edukitzea

► Pertsona bat kutsatzen denean, immunologia sistemako zeluletan sartzen da GIBa, bereziki T4 linfuzitoetan, eta apurka-apurka, guztiak suntsituz joaten da.

Lehen fase honetan, eskuarki ez da ezeren sintomarik izaten.

► Denbora igaro denean –urteak, batzuetan–, sintoma batzuk agertzen has daitezke, birusa sistema immunitarioa kaltetzen eta ahultzen ari baita.

► **Hiesa GIB infekzioaren fase aurreratuena da.** Sistema immunitarioa hondatu izanaren ondorioz, infekzio oportunistak edo zenbait minbizi agertzen direnean adierazten da.



SEXU MUXU

Nola transmititzen da GIBa?

Odolaren, haziaren, baginako jariakinen eta amaren esnearen bidez.

GAUR EGUN, GIB INFEKZIO GEHIENAK BABES GABEKO SEXU HARREMANEN BIDEZ
TRANSMITITZEN DIRA

Arrisku handikoa

- Presebatibo gabeko baginako penetrazioa.
- Presebatibo gabeko uzkiako penetrazioa.

Arriskutsua

Praktika aho-genitalak:

- Felazioa (aho-sexua gizonezko bati).
- Cunnilingusa (aho-sexua emakumezko bati).
- Arriskua felazioa edo cunnilingusa egiten duen pertsonak soilik du (ahoarekin hazia edo baginako jariakina ukitzen duelako)
- Felazio edo cunnilinguseko parte-hartzaile pasiboak ez du arriskurik (listuak ez du GIB transmititzen).

Arrisku gabea

- Ferekak
- Ahotik ahorako musuak.
- Elkar masturbatzea



SEXU MUXU

Nola EZ da transmititzen GIBa?

- GIBa duen pertsona batekin bizitzeagatik, lan egiteagatik edo ibiltzeagatik.
- GIBa duen haur bat joaten den haurtzaindegi edo ikastetxe berera joateagatik.
- Eskua emateagatik, besarkatzeagatik edo musu emateagatik.
- Mahaiko tresna, plater edo edontzi bera partekatzeagatik.
- Komun, igerileku edo dutxa publikoak erabiltzeagatik.
- Eltxoren batek ziztatzeagatik edo etxeko animalien bidez.
- Odola hartzeagatik edo emateagatik.

Nola jakin GIBaren eramailea naizen edo ez?

- Berariazko odol analisi bat egin behar da pertsona batek GIBaren kontrako antigorputzak dituen ala ez hautemateko.
- Pertsona batek, infektatu ondoren, 3 hilabete inguru behar ditu antigorputzak garatzeko (analisietan, hain zuzen, antigorputzak hautematen baitira). Hortaz, emaitza fidagarria izango bada, hiru hilabete itxaron behar da arriskuko praktika izan zenetik zenbatuta.

GIBaren testa segurua izateko itxaron behar den aldia 3 hilabetekoa da, arriskuko praktika izan zenetik zenbatuta



SEXU MUXU

Zer esan nahi du GIBaren testean emaitza positiboa izateak?

- Pertsona hori seropositiboa dela, GIBaren eramailea, alegia.
- Infekzioa biritza osorako da, nahiz eta, gaur egun dauden erretrobirusaren aurkako tratamenduei esker, gaixotasuna kontrolpean eduki litekeen eta nahiko bizi kalitate ona posible egiten duten.
- Pertsona horrek transmiti diezaieke birusa beste pertsona batzuei, aurrez deskribatu diren arriskuko praktiken bitartez.

Sendatzen al da GIBa?

GIBa EZ DA SENDATZEN
BEHIN ORGANISMOAN SARTZEN BADA, EZ DAGO HURA SUNTSITZERIK

- Badira erretrobirusaren aurkako tratamendu aurreratuak, birusa biderkatzea blokeatzen dutenak, eta guztiz suntsitzea lortzen ez badute ere, oso maila apalean eusten diote; hala, nahiko bizi kalitate ona lortzen dute gaixoek.

GIBa edukitzea, jada, gaixotasun hilgarria ez bada ere, oso gaitz larria da oraindik, eta oinarri-oinarrizkoa da prebentzioa



SEXU MUXU

Prebentzioa oinarrizkoa da: erabili preserbatiboa

SEXU HARREMAN SEGURUAK IZATEA DA GIB-AREN AURKAKO HESI ONENA

- Gogoratu pertsonaren itxuragatik ez dagoela jakiterik GIBaren eramailea den edo sexu-transmisioko beste infekzioen bat duen.

Ezinbestekoa da preserbatiboa erabiltzea, GIBaren eramailea ez dela segurtasun osoz ez dakizun pertsona batekin penetrazioa barne duten sexu-harremanak praktikatzen direnean

Nola erabili, behar bezala, gizonen preserbatiboa?

1. Kontrola ezazu preserbatiboaren iraungitze-data.
2. Erabili ezazu preserbatiboa kontuz, azazkalekin, hortzekin, eraztunekin edo beste ezerekin zulatu edo kaltetu gabe.
3. Ipini ezazu preserbatiboa zakila tente dela, genitalek elkar ukitu aurretik.
4. Desbiribilka ezazu zakilaren oineraino, aldez aurretik preserbatiboaren punta zapalduz, barruko airea ateratzeko.
5. Labaingarriak erabiltzekotan, uretan urtzen direnak soilik erabili (glizerina); ez erabili labaingarri koipetsurik (baselina, olioak, eta abar), kalte egiten baitiote preserbatiboari.
6. Penetrazio-aldi osoan erabili preserbatiboa. Eutsi oinetik eta erantzi ezazu artean zakila tente dela; ondoren, korapila ezazu.
7. Penetrazio bakoitzean preserbatibo berria erabili behar da.



SEXU MUXU

8. Behin erabili ostean, zaborretara bota behar dira preserbatibo korapilatuak eta ez komunera.

9. Bero, argitasun eta hezetasun handiegitik gorde behar dira, elementu horiek hondatu egiten baitituzte preserbatiboak. Preserbatibo likatsuak, hauskorrak edo beste akatsen bat dutenak, ez dira erabili behar.

ESKURA EDUKI BEHAR DIRA!

ERABILI PRESERBATIBOA